duma iraunkorrekin, Museoei buruzko Foru Legea garatzeko" izeneko A20003 A2310 4816 333102 (***) aurrekontu-lerroa, eta 40.000 euro ditu.

Laugarren kapituluan katalogatuta egotea ez zetorren bat bere izenaren eta zuzenketan agertutako zioen xedearekin, ezta Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legean ezarritako eskakizunekin.

Hori dela eta, aztertu genuen aurrekontu-lerroaren kodifikazioa aldatzea edota aurrekontu-lerroa inbertsio-xedeetarako erabil zedin onestea, eta horixe da azkenean egin dena. Hala, ekainaren 16ko 41E/2011 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren museoetan eta bilduma museografiko iraunkorretan inbertsioak egiteko laguntzen deialdiaren oinarriak.

Deialdia uztailaren 15eko 141. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 16tik abuztuaren 4ra artekoa zen.

Eskaerak baloratzeko batzordeak abuztuaren 17an egin zuen bilera. Proposamenean, zenbait

proiektu laguntzarik gabe geratu ziren, aurrekontu-lerroan ez zegoelako diru gehiagorik.

Eskaera aurkeztu zuten museo eta bilduma museografiko iraunkorren mesedetan, Museoen Zerbitzuak aurrekontu-doikuntza bat egin eta aurrekontu-lerroari 10.000 euro gehitzea proposatu zuen. Proposamen hori abuztuaren 25eko 346/2011 Ebazpenaren bidez onetsi zen.

Hurrengo izapidea –laguntza guztiak emateko deialdiaren zenbatekoa hasierako 40.000 euroetatik 50.000ra igotzea– geldiarazi egin zen irailaren hasieran, Nafarroako Gobernuak iragarritako aurrekontu-doikuntzaren ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “Kultur kudeatzaileen prestakuntza” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Kultur kudeatzaileen prestakuntza” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Kultur

kudeatzaileen prestakuntza” izeneko aurrekontu-lerroaren betetzearen gradua, maila eta zenbatekoari buruz (PES-123). Hona Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontu-lerro horrek 20.000 euro ditu. Irailaren 5ean, betetako zenbatekoa 5.000 eurokoa zen; horrek aurrekontu-lerroan erabilgarri dagoen zenbatekoaren % 25 egiten du. Aurreikuspenen arabera aurrekontu-lerro osoa beteko da; hala ere, 2012ra atzeratu da % 16, 2011n eginiko aurrekontu-doikuntzaren ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Iruñeko katedraleko musika-kaperarekin” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Hitzarmena Iruñeko katedraleko musika-kaperarekin” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzuteko, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmena Iruñe-

ko katedraleko musika-kaperarekin" izeneko aurrekontu-lerroaren betetzearen gradua, maila eta zenbatekoari buruz (PES-124). Hona Nafarroako Gobernuako Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontu-lerro horrek 25.000 euro ditu. Irailaren 5ean, betetako zenbatekoa 12.500 eurokoa zen; horrek aurrekontu-lerroean erabilgarri dagoen zenbatekoaren % 50 egiten du. Aurreikuspenen arabera aurrekontu-lerro osoa beteko da; hala ere, 2012ra atzeratu da % 16, 2011n eginiko aurrekontu-doikuntzaren ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “Nafarroako Immigranteen Elkartearen Federazioarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Nafarroako Immigranteen Elkartearen Federazioarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "FAIN Nafarroako Immigranteen Elkartearen Federazioarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena" izeneko aurrekontu-lerroaren zenbait alderdiri buruz (PES-00125). Hona Nafarroako Gobernuako Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

2011ko ekainaren 30ean, ez zen aurrekontu-lerro horretako inolako zenbatekorik bete.

Urtarrilean eta hurrengo hilabeteetan, Immigrazioarako Bulegoa harremanetan egon zen aipatu

entitatearekin, hitzarmenaren xede ziren jarduketak zehazte aldera, eta maiatzean lortu zen jarduketa horiei buruzko adostasuna.

Ondoren, Espainiako Atzerritarren Eskubideei eta Libertateei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onesten duen apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua onetsi eta gero, aukera sortu zen FAINEkin hitzarmena egiteko, prestakuntza-jarduera atzerritarren integrazio-ahaleginari buruzko txostenari lotuta sartze aldera. Aukera hori egokia iruditu zitzaien,

eta Lan eta Immigrazioko Ministerioak informazio zehatza ematen duenean, gai hori koordinatu eta antolatuko da, hitzarmena gauzatze aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Agora GKEarekin, etorkin gazteen taldeekin bitartekaritza-lanak egiteko” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Hitzarmena Agora GKEarekin, etorkin gazteen taldeekin bitartekaritza-lanak egiteko” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Dirulaguntza Agora GKEari, etorkin gazteen taldeekin bitartekaritza-lanak egiteko" izeneko aurrekontu-lerroaren zenbait alderdiri buruz (PES-00126). Hona Nafarroako Gobernu-

ko Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

2011ko ekainaren 30ean, ez zen aurrekontu-lerro horretako inolako zenbatekorik bete.

Urtarrilean eta hurrengo hilabeteetan, Immigrazioarako Bulegoa harremanetan egon zen aipatu entitatearekin, hitzarmenaren xede ziren jarduketak zehazte aldera. Sinatu beharreko hitzarmenaren ezaugarrien eta baldintzen inguruko adostasuna lortu zen unean, zegokion administrazio-izapidetzea jarri zen abian eta, hitzarmena onetsi ondoren, iragan irailaren 1ean sinatu zen.

Gaur egun lehen ordainketari dagokion abonua izapidetzen ari da, eta laster gauzatuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Operaren Lagunen Gaiarre Elkartearekin” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Hitzarmena Operaren Lagunen Gaiarre Elkartearekin” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmena Ope-

raren Lagunen Gaiarre Elkartearekin" izeneko aurrekontu-lerroaren betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-151). Hona Nafarroako Gobernuako Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontu-lerro horrek 325.000 euro ditu. Irailaren 5ean, betetako zenbatekoa 243.750 eurokoa zen; horrek aurrekontu-lerroean erabilgarri dagoen zenbatekoaren % 75 egiten du. Aurreikuspenen arabera aurrekontu-lerro osoa beteko da; hala ere, 2012ra atzeratu da % 16, 2011n eginiko aurrekontu-doikuntzaren ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “Nafarroako Antzerki Eskolarekiko hitzarmena” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Nafarroako Antzerki Eskolarekiko hitzarmena” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmena Nafarroako Antzerki Eskolarekin" izeneko aurrekontu-lerroaren betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-152). Hona Nafarroako Gobernuako Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontu-lerro horrek 375.000 euro ditu. Irailaren 5ean, betetako zenbatekoa 281.250 eurokoa zen; horrek aurrekontu-lerroean erabilgarri dagoen zenbatekoaren % 75 egiten du. Aurreikuspenen arabera aurrekontu-lerro osoa beteko da; hala ere,

2012ra atzeratu da % 16, 2011n eginiko aurrekontu-doikuntzaren ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza errekoletoen komentuko teilatua zaharberritzeko” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Dirulaguntza errekoletoen komentuko teilatua zaharberritzeko” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Dirulaguntza Errekoletoen komentuko teilatua zaharberritzeko" izeneko aurrekontu-lerroaren zenbait alderdiri buruz (PES-00153). Hona Nafarroako Gobernuako Kultura,

Turismo eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Tafallako Udalak Errekoletoen komentuko teilatua zaharberritzeko proiektu bat prestatzeko enkargua egin zuen. Proiektu hori idatzi ondoren, Ondare Historikoaren Zerbitzuan aurkeztu zuten. Ondoren, Kulturako zuzendari nagusiaren ekainaren 15eko 257/2011 Ebazpenaren bidez, 100.000 euroko gastua egiteko baimena eman zen Tafallako Udalaren alde, 100.000 euroko aurrekontua duen proiektu horren arabera lanak diruz laguntze aldera.

Tafallako Udalak oraindik ez ditu obrak esleitu, baina, aurreikuspenen arabera, urtea amaitu baino lehen esleitu eta burutzeko asmoa du. Hala bada, aurrekontu-lerroa bete egingen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “Liburutegi berriak” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Liburutegi berriak” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurre-

kontu Orokorretako "Liburutegi berriak" izeneko aurrekontu-lerroaren zenbait alderdiri buruz (PES-00154). Hona Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Ekainaren 30ean, aurrekontu-lerro osoa bete da; Antsoaingo Udalari emandako dirulaguntzaren % 100 ordaindu da eta ordaintzeke daude Fontellasko Udalari dagozkion 8.954,39 euroak, zeinak ordainduko baitira inbertsioaren ziurtagiriak aurkezten direnean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “Gizarte etxeak eraikitzea eta ekipatzea” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Gizarte etxeak eraikitzea eta ekipatzea” izeneko aurrekontu-lerroak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzuteko, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Gizarte etxeak eraikitzea eta ekipatzea" izeneko aurrekontu-lerroaren betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-155). Hona Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

"Gizarte etxeak eraikitzea eta ekipatzea" izeneko aurrekontu-lerroa aurrekontu-doikuntzaren xede izan da, aurtengo defizit helburua –BPGaren %1,3– betetze aldera; izan ere, doikuntzaren pro-

posamena egin zenean ez zegoen jasota aurrekontu-lerro horren kargura egin beharreko proiektuetatik bat ere aurkeztu izana.

Hurrengo izapidea –laguntza guztiak emateko deialdiaren zenbatekoa hasierako 40.000 euroetatik 50.000ra igotzea– geldiarazi egin zen irailaren hasieran, Nafarroako Gobernuak iragarritako aurrekontu-doikuntzaren ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamenturako 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean eginiko bilkuran, erabaki zuen agintzea argitara dadila Comptos Ganberak Nafarroako Parlamenturako 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruz egindako fiskalizazio txostena.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean.

Lehendakaria, Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamenturako 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua (22. or.).
- II. Norainokoa eta mugak (23. or.).
 - II.1. Norainokoa (23. or.).
 - II.2. Mugak (24. or.).
- III. Hauteskudeetako emaitzak eta gehieneko diru-laguntzak (24. or.).
 - III.1. Hauteskudeetako emaitzak. (25. or.).
 - III.2. Hauteskudeetako gehieneko laguntzak. (26. or.).
- IV. Ondorioak (26. or.).
 - IV.1. Ondorio orokorra (26. or.).
 - IV.2. Alderdi politikoen aurkeztutako dokumentazioari buruzko ondorioak (27. or.).
 - IV.3. Formazio politikoen egindako gastuen eta jasotako diru-laguntzen laburpena (27. or.).

V. Aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateen erregularitasuna (27. or.).

V.1. Unión del Pueblo Navarro (27. or.).

V.2. Nafarroako Alderdi Sozialista-Partido Socialista Obrero Español (29. or.).

V.3. Nafarroa Bai 2011 hauteskunde-koalizioa (31. or.).

V.4. Bildu-EA- Alternatiba Eraikitzen (33. or.).

V.5. Alderdi Popularra (34. or.).

V.6. Izquierda – Ezkerra (36. or.).

I. eranskina. Taula orokorra (38. or.).

I. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeko 12. artikularekin bat eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan ezarritakoa betez, Comptos Ganberak informazioa emanen die Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeetan Parlamentuan ordezkartza lortu zuten alderdien hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruz. Gainera, kontabilitatean irregulartasunik edo hauteskunde-gastu eta -diru-sarreretako mugen urraketarik antzematen bada, alderdiari kasuan kasuko diru-laguntza ukatzea edo murriztea proposatuko du.

Horrenbestez, txosten honen helburua da iritzia ematea aipatu hauteskundeetan Parlamentuan ordezkartza lortu duten formazioek aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateari buruz, eta iritzi horren emaitza gisa, Nafarroako Parlamentuari proposatzea dagokion diru-laguntza ematea nahiz kendu edo murriztea. Helburu orokorra garatu edo zehazteko honakoak egiaztatuko ditugu:

- Legezketasunaren betetzea, hala hertsiki hauteskundeetako dena, nola orokorrean aplikatzekoak diren merkataritza-arauak eta arau fiskalak eta kontabilitatekoak.

- Aurkeztutako hauteskunde-kontabilitatea islagarria izatea.

- Kontabilitate-erregistroen dokumentu bidezko justifikazioa.

Azterketa-lana 2011ko abuztuan egin zuen auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gure lan honetan esku hartu duten langile guztiei, eman diguten laguntzarengatik.

II. NORAINOKOA ETA MUGAK

II.1. NORAINOKOA

Lan honetan aztertu ditugu 2011ko hauteskundeetan Parlamentuan ordezkaritza lortu zuten alderdiek aurkeztu dituzten hauteskunde-kontabilitatea eta gastu eta diru-sarreraren justifikazioak. Fiskalizazioa Nafarroako Parlamenturako hauteskunde prozesura mugatu da. Ez da, horrenbestez, kontabilitateen fiskalizazio bat, ez eta alderdi politikoaren finantziarioarena ere.

Hori baino lehen, Nafarroako Comptos Ganberak gutun bat igorri zien hauteskunde-administratzaileei, hauteskunde araudi indardunetik heldu diren kontabilitate-betebeharrak gogorarazteko.

Zehazki, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetako buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak —eta, hark aurreikusten ez duen orotan, Nafarroan ezartzekoa den 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskunde Erregimen Orokorri buruzkoak— agindutakoa betetzeko, Nafarroako Comptos Ganberak bereziki fiskalizatu behar ditu hurrengo aldeak:

- Hauteskunde-kontabilitate berezia —eskututako justifikazioa eta kontabilitateko agiriak barne— epe barruan aurkeztu dela.

- Administratzaile nagusiek hauteskunde-funtsak biltzeko banku-kontuak ireki ote dituzten egiaztatzea, foru legeko 41. artikulua eta lege organikoko 124. artikulua ezarritakoari jarraikiz, eta diru-sarrera eta ordainketa guztiak hauteskundeetako kontu korrontearen bidez egin direla egiaztatzea (lege organikoko 125.1 artikulua).

- Aurkeztu den kontabilitatea indarreko Kontabilitate Plan Orokorreko oinarri nagusiekin bat datorrela, Lege Organikoko 121. artikularekin bat.

- Hauteskunde prozesua finantzatzeko erabili diren baliabide guztien jatorria identifikatzea, oro har, eta hauteskunde-gastuei aurre egiteko funtsak jartzen dituztenei lege organikoko 126. artikulua ezartzen dizkien betebeharrak betetzen direla.

- Lege organikoko 129. artikulua, urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoaren bidez aldatuak, pertsona fisiko zein juridikoei ezartzen dien muga, alegia, alderdi, federazio, koalizio edo elkarte jakin bati gehienez 10.000 euro eman ahal izatea.

- Hauteskunde-funtsak emateko debekuak, lege organikoko 128. artikulua ezarriak, baldin eta ondoko hauetakoren batetik heldu badira funtsak: edozein administratziotatik edo entitate publiko nahiz paraestataletatik, bai eta, indarreko kontratu bidez, administrazio publikoren bati zerbitzuak edo hornidurak eman edo obrak egiten dizkieten enpresetatik. Debeku bera dute atzerriko erakunde edo pertsonak.

- Egiaztatzea ezen hauteskunde-gastuak hauteskundeetarako deia egin zenetik burutu arterainoko epean egin direla, Lege Organikoko 130. artikulua ezarritakoaren arabera.

- Fiskalizatu diren talde politikoek aitortu dituzten gastuak Lege Organikoko 130. artikulua ezarritakoaren barruan direla egiaztatzea. Hona Lege Organikoa gastu horiek nola sailkatzen dituen:

- a) Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea.

- b) Norbere hautagaien aldeko botoa sustatzeko zabalkunde eta publizitate zuzena edo zeharkakoa, edozein direla erabilitako modua eta bitartekoak.

- c) Hauteskunde kanpainako ekintzak burutzeko lokalak alokatzea.

- d) Hautagaiei zerbitzuak ematen dizkieten aldi baterako langileentzako ordainketak edo sariak.

- e) Hautagaien, alderdi, elkarte, federazio edo koalizioetako zuzendarien, eta hautagaiaren zerbitzuko langileen garraio bideak eta joan-etorrien gastuak.

- f) Posta eta zigiluak.

- g) Hauteskunde kanpainarako hartu diren kredituen interesak, dagokion diru-laguntza jaso arte sortuak.

- h) Hauteskundeetarako behar diren bulego eta zerbitzuen antolamendu eta jardunerako behar diren guztiak.

- Hauteskunde gastutzat deklaraturikoak eta behar den epean sortuak direnak aztertzea, ziurta-

tu ahal izateko kontabilitate, merkataritza eta zerga-arauek eskaturiko funtsezko betebeharrak betetzen dituzten dokumentuen bidez egiaztatu direla.

– Kontrolatzea ezein alderdik ez dituela honako muga hauek gainditu:

a) Foru Legeko 43.1 artikulua ezarritako hauteskunde-gastuen gehieneko muga. Zenbateko hori Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emandako 43/2011 Foru Aginduak eguneratu eta finkatu zuen: 389.697 eurokoa da.

b) Aurreko Foru Aginduan eta 76/2003 Foru Dekretuan ezarritako muga, hautesleei propaganda, gutun-azalak eta boto-paperak bidaltzeko gastuetarakoa. Muga horrek 0,23 euro hautesleko egiten du.

c) 5/85 Lege Organikoko 58.1 artikulua ezarritako muga, egunkarietako eta titularitate pribatuko irratietako publizitate-gastuak direla eta, hauteskunde-gastuen mugaren ehuneko 20 dena; hau da, 77.939 euro.

d) Bi hauteskunde-prozesutara —foru hauteskundeak eta udal hauteskundeak— aurkezten diren alderdietarako, aplikatzekoa den gastuaren muga izanen da haietatik aldekoena dena gehi Gorte Nagusietarako hauteskundeetarako ezarritako mugaren ehuneko 25, Hauteskunde Erregimen Orokorri buruzko Legeko 131.2 artikulua arabera. Hala eta guztiez ere, muga hori betetzen ote den berrikustea Kontuen Epaitegiari dagokio.

– Jaso beharreko diru-laguntzek, guztira, hauteskunde-gastu justifikatuak ez dituztela gainditzen egiaztatzea; zehazki 43/2011 Foru Aginduak diru-laguntzetarako ondoko zenbatekoak ezartzen ditu:

a) Lortutako eserleku bakoitzeko, 11.472 euro.

b) Lortutako boto bakoitzeko, 0,92 euro, gutxienez ere eserleku bat lortzen baldin bada.

c) Zuzeneko bidalketarengatik, 0,23 euro hautesle bakoitzeko.

– Urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoaren bidez aldaturiko 1985eko ekainaren 19ko Lege Organikoko 133.3 eta 133.5 artikulua betetzen diren egiaztatzea, Nafarroako hauteskondeei aplikatzekoak zaizkien moduan. Ondoko betebeharrak ezartzen dituzte: finantza-erakundeek Kontuen Auzitegiari/Comptos Ganberari jakinarazi behar dizkiote elkarte politikoei hauteskunde-gastuetarako ematen dizkieten maileguak, eta orobat ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek ere, zenbatekoa 10.000 euro baino handiagoa denean.

Hauteskunde arauen arabera, honakoak dira Nafarroako Parlamenturako 2007ko maiatzeko hauteskundeetatik sortu diren gastu eta diru-sarreen kontabilitate zehaztu eta dokumentatua aurkeztu behar duten alderdi politikoak:

– Unión del Pueblo Navarro

– Nafarroako Alderdi Sozialista-Partido Socialista Obrero Español

– Nafarroa Bai 2011 hauteskunde-koalizioa

– Bildu – Eusko Alkartasuna (EA) - Alternatiba Eraikitzen

– Alderdi Popularra

– Izquierda-Ezkerra koalizioa

UPN, PSN, Bildu eta Izquierda-Ezkerra alderdi edo koalizioek epe barruan aurkeztu zituzten beren kontabilitateak. Epe hori 2011ko uztailaren 22an amaitzen zen. Nabai 2011 koalizioak abuztuaren 4an eta Alderdi Popularrak abuztuaren 16an aurkeztu zituzten beren kontabilitateak, biak 16/1986 Foru Legeko 46. artikulua ezarritako legezko epetik kanpo.

II.2. MUGAK

Egin den lanean izan ditugun mugen jatorriak ondoko hauek izan dira:

- Hauteskundeetako gastuen eta diru-sarreen fiskalizazio osoa egiteak eskatuko luke alderdi politikoen ekonomi eta finantza jardun guztia aztertzea, eta aplikagarria den legeriak Kontuen Epaitegiari ematen dio ahalmen hori.

- Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak eta udal-kontzejuetako hauteskundeak, zein Europakoak, batera egiteak, benetan zaildu du hauteskunde bakoitzari dagozkion gastu eta diru-sarrerak zehaztea.

III. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK ETA GEHIENEN DIRU-LAGUNTZAK

III.1. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeak egin ondoren, hona eserlekua lortu duten talde politikoei eskuratutako botoak eta eserleku kopurua, Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialaren 2011ko maiatzaren 30eko Aldarrikapen Aktaren arabera, eta Batzar berak bidali eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (2011ko ekainaren 23ko 1. NPAO) argitaraturiko foru parlamentarien zerrendarekin bat:

Alderdia	Eserlekuak	Botoak	Hautesleak
Unión del Pueblo Navarro	19	111.474	
Partido Socialista de Navarra	9	51.238	
Nafarroa Bai 2011 hauteskunde-koalizioa	8	49.827	
Bildu - EA- Alternatiba Eraikitzen	7	42.916	
Alderdi Popularra	4	23.551	
Izquierda-Ezkerra koalizioa	3	18.457	
Guztira	50	297.463	485.386

III.2. HAUTESKUNDEETAKO GEHIENAKO LAGUNTZAK.

Txosten honetako II. atalean aipaturiko hauteskunde-arauen arabera, Nafarroako Foru Komunitateak hurrengo diru- laguntzak emanen dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteei:

a) Hauteskundeetako emaitzengatik:

- Lortutako eserleku bakoitzeko, 11.472 euro.
- Lortutako boto bakoitzeko, 0,92 euro, gutxienez ere eserleku bat lortzen baldin bada.

b) Zuzeneko bidalketarengatik, 0,23 euro hautesle bakoitzeko⁽¹⁾, gutxienez ere eserleku bat lortu duten hauteskunde-zerrendei, hori egin dutela betiere justifikatuta.

Halaber, agintzen da egiazki eginiko hauteskunde gastuen diru-kopurua gainditzen duen diru-laguntzarik ez dela behin ere emanen.

Aurreko hauteskunde-emaitzak eta haien arabera diru-laguntzak kontuan izanda, ondoko taulan jaso dugu 2011ko hauteskundeetan gutxienez eserleku bat lortu duten formazioetako bakoitzari legokiokeen gehieneko diru-laguntza teorikoa.

Alderdia	Hauteskundeetako emaitzengatik ⁽²⁾	Propaganda bidaltzeagatik
Unión del Pueblo Navarro	320.524,08	111.638,70
Partido Socialista de Navarra	150.386,96	111.638,70
Nafarroa Bai 2011 hauteskunde-koalizioa	137.616,84	111.638,70
Bildu - EA- Alternatiba Eraikitzen	119.786,72	111.638,70
Alderdi Popularra	67.554,92	111.638,70
Izquierda-Ezkerra koalizioa	51.396,44	111.638,70
Guztira	847.265,96	669.832,20

(1) Erroldatutako hautesle kopurua 485.386koa da, Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialaren arabera.

(2) Hauteskunde-gastuen muga, bidalketa zuzenari buruzkoak alde batera utzita, 389.697 eurokoa da.

Diru-laguntzen aurrerapena

Nafarroako Gobernuak bi aurrerakin eman ditu, aurreko 2007ko foru hauteskundeetan jasotako diru-laguntzaren ehuneko 30 eta gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten

dutenak, 2011ko maiatzaren 2ko, maiatzaren 9ko eta abuztuaren 31ko erabakien bidez. Erabaki horiek Foru hauteskunderi buruzko Foru Legearen 45.1. artikuluan eta 46. artikuluko bigarren lerroka-dan oinarrituta hartu dira.

Alderdia	% 30eko aurrerakina	% 45eko aurrerakina
Unión del Pueblo Navarro	123.458,07	144.235,84
Partido Socialista de Navarra	82.869,86	67.674,13
Nafarroa Bai 2011 hauteskunde-koalizioa	48.322,94	61.927,58
Bildu - EA- Alternatiba Eraikitzen	27.611,92	53.904,02
Alderdi Popularra	0	30.399,71
Izquierda-Ezkerra koalizioa	45.661,84	23.128,40

IV. ONDORIOAK**IV.1. ONDORIO OROKORRA**

Egindako fiskalizazioaren norainokoa eta emaitzak kontuan hartuta, Comptos Ganbera honek zera erabaki du: 16/86 Foru Legeko 47. artikuluko aurreikusitako hauteskunde-diru-laguntzak kentzea edo murriztea ez proposatzea, Nafarroako Parlamentuko 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeetan eserlekua atera duen ezein alderdi politikoa edo koalizioentzat.

Dena den, bi hauteskunde-prozesu izan direnez aldi berean, kontuan izan behar da 5/1985 Lege Organikoko 131.2 artikuluan araututako gastuen gehieneko mugak baduela zer esanik. Estatu-kontuen Epaitegiak zainduko du hori betetzen dela.

IV.2. ALDERDI POLITIKOEN AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO ONDORIOAK

Eginiko azterketatik, honakoak dira nabarmentzekoak:

* UPN, PSN, Bildu eta I-E formazioek beren hauteskunde-kontabilitatea Comptos Ganberari aurkezteko betebeharra legezko epean bete dute. Nabai-k 2011 eta Alderdi Popularrak, berriz, geroago bete zuten.

* Aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateak, kontabilitate-irizpideei jarraituz, funtsean, honako kontabilitate-liburuetan jasotzen dira: egunerokoan

eta kontabilitate-liburu nagusian. UPNk baizik ez ditu kontuak aurkeztu 5/1985 Legeko 130. artikuluko aipatzen dituen gastu-kontzeptuen arabera. Alderdi Popularrak banku-laburpena baizik ez du aurkeztu, kasuko fakturekin batera.

Hala eta guztiz ere, kasu guztietan Nafarroako Comptos Ganberak informazio zehatza eduki ahal izan du, kasuko kontabilitate-birsailkapenak egiteko.

* UPN eta Nabai 2011 taldeek bereizkuntzarik egin gabe erabili dtuzte, batzuetan, udal eta foru hauteskundeetako banku-kontuak.

* Alderdi guztiek bete dituzte indarreko araututako hauteskunde-gasturako ezarritako mugak⁽³⁾.

* Gastu orokorreari dagokionez, PSNk, Nabai 2011-k, Bilduk eta I-Ek aurkeztutakoetan doikuntzak egin dira. Nahiz eta gastuak aldatzen dituzten, aldaketa horiek ez dute eraginik diru-laguntzan, zeren eta gastuak hauteskunde-emaitzen bidez lortzen den diru-laguntza baino handiagoak baitira.

* Propaganda bidaltzearen ondoriozko gastuei dagokionez, doikuntza batzuk egin dira PSNk aurkeztutako gastu finantzarioetan, 389 eurokoak. Doikuntza horiek eragina dute bidalketengatik jaso beharreko diru-laguntzan.

* Alderdi guztiek adierazi dute nondik datozen funtsak, alderdiek emandako diruari dagokionez, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege

(3) Behin-behineko txosteneko lerrokada hau zuzendu da, UPNk aurkeztutako alegazioa aintzat hartzean; izan ere, UPNren ustez, interneteko publizitateari dagokion gastuak ez dira prentsa eta irrati-taketako publizitate-taketak hartu behar, zeren eta hori interpretazio kontu bat baita, eskubideak murriztu ditzakeena. Araudian gastu horien izaera argi ez dagoenez, gomendio bat egin dugu, gai hori argitze aldera.

Organikoaren 126.3. artikuluan ezartzen den moduan.

* Oro har, aurkeztutako fakturei eta justifikazioei dagokienez, esan beharra daukagu orokorrean gastuak zuzen justifikatuta daudela eta hauteskunde-jatorrikoak direla. Hala ere, gastuak eta hauteskunde-mugak zehazteko, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluan ezartzen den moduan, bidalitako gastuak birsaikatu behar izan ditugu.

* Eragiketa horiek ganbera honi jakinarazteko betebeharra duten hirugarrenek bete dute, oro har, informazioa emateko betebehari, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 133. artikuluari jarraikiz.

Gomendioak

Egungo araudiaren arabera Comptos Ganbera honi dagokion hauteskunde-arautasunaren kontrola hobetzeko asmotan, hona gomendioak:

Alderdia	UPN	SPN	NABAI	BILDU	PP	I-E	Guztira
Aurkeztutako gastuak, guztira	475.647	277.763	326.944	230.173	101.664	306.201	1.718.392
Onartutako gastuak, guztira	475.647	276.853	321.219	229.343	101.664	277.737	1.682.463
Jaso beharreko diru-laguntza, guztira	409.852	257.555	242.603	225.178	101.664	153.308	1.390.160
Finantzuaren %/onartuak	% 86	% 93	% 76	% 98	% 100	% 55	% 83
1. aurrerakina (2007an jasotako diru-laguntzaren %30)	123.458	82.870	48.323	27.612	0	45.662	327.925
2. aurrerakina (2011ko hauteskundeetako emaitzen araberako diru-laguntzaren % 45)	144.236	67.674	61.928	53.904	30.400	23.128	381.270
Kitatu gabea	142.158	107.011	132.352	143.662	71.264	84.518	680.965

Nafarroako Parlamentuan ordezkari izatea lortu duten alderdi politikoek aurkeztu dituzten hauteskunde-gastuak 1.718.392 euro egiten dute, guztira; horietatik, 1.681.899 euro onartzen dira.

Nafarroako Gobernuak onartutako gastu horiek finantzatzen ditu 1.390.160 euroko ekarpenekin; hau da, kostu osoaren % 83 finantzatzen du. Alderdiak ekarpenak jasotzen dituzte hauteskundeetako emaitzen eta bidalketa zuzenaren gastu egiaztatuaren arabera.

Kontuei buruzko xehetasunak I. eranskinean agertzen dira.

* *Udal hauteskundeetarako eta foru hauteskundeetarako kontabilitateak bereizirik eramatea.*

* *Kontuak aurkeztea 5/1985 Legeko 130. artikulua aipatzen dituen gastu-kontzeptuen arabera sailkatuta.*

* *Hauteskunde araudia gaurkotzea, informazioaren teknologia berrien erabileratik heldu diren gastuak eduki beharreko izaerari dagokionez, Kontu Auzitegiaren gomendioen arabera.*

IV.3. FORMAZIO POLITIKOEK EGINDAKO GASTUEN ETA JASOTAKO DIRU-LAGUNTZEN LABURPENA

Txosten honetako V. atalean islatutako emaitzen arabera, kontuan hartuta gastuen legeko mugak eta gehieneko diru-laguntzak eserleku bakoitzeko eta boto kopuruaren arabera, ondoko taulan formazio bakoitzaren gastuak eta jaso beharreko diru-laguntza bildu ditugu, eurotan adierazita.

V. AURKEZTUTAKO HAUTESKUNDE-KONTABILITATEEN ERREGULARTASUNA

V.1. UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

Alderdi politikoak gastuen egoera-orriaren laburpen bat aurkezten du, kontzeptuen arabera, lege organikoaren 130. artikuluan ezarritako hauteskunde-gastuen sailkapenari jarraikiz. Hauteskunde-kontabilitateak Nafarroako Parlamenturako eta udaletarako hauteskundeetatik eratorritako gastuak eta diru-sarrerak biltzen ditu.

